

## Kale borroka, su-etena, hauteskundeak

**ONERAKO** edo txarrerako, hasi berri den ikasturte honetan gertakizun klabeak izango direla antzematen dugu gehienok, batez ere normalizazio politikoaren eta bakegintzaren eremuan. Hainbat arrazoiengatik, ezinbestekoa da orain arteko ildo garrantzitsuak indartzea edo ahultzea. Gura ala ez, denok gaude ETak Bruselako Ekimenari erantzungo dionari begira. Halakotan era guztietako datak eta zurruruak zabaltzen dira, gehienak modu interesatuan bideratuak. Bolo-bolo dabil irailan zerbait garrantzitsua gertatuko dela, *El País*-ek eta Vocentoko medioek ETaren su-etena izan daitekeela ere idatzi dute iragan asteburuan.

Ez litzateke harriztekoa. Lehenik, ETak erantzun egin behar dio nazio-arteko tamainako ekimenari, hala egingo duela iradoki zuen bere garaian eta berandu baino lehen bada denentzat hobe. Su-etinari baiezkua ezinbestekoa da, beste gauza bat da berau egiaztatzeke batzordearena. Hor zalantza gehiago ditut. Orain arteko ETaren jarrearari begira, logikoa litzakete hori beste urrats batean gauzatzea. Bigarrenik, hilaren 30ean Bruselako Adierazpenak sei hilabete beteko ditu eta hortik aurrera astetik astera

higadura politikoa biziki nozituko du.

Hirugarrenik, hauteskunde giroan gaude eta maiatzera arteko aurrekanpaina luzea hasiko da orain. Azken urte luzeetako agintaldien jorak hala dela erakusten du: urtebete gobernu berria entrenatzen, bi kudeaketa gogorrean eta laugarrena hurrengo hauteskundeei begira.

Inozoa litzateke pentsatzea ezker abertzaleak iaiztik hona hartutako erabaki historikoa hauteskontzietan begira dagoela. Baina inozoa da, halaber, ezker abertzaleak udaberriko hauteskundeei muzin egingo diela irudikatzea. Ezker abertzalearentzat izugarri garrantzitsua da euskal gizarteari berriz ere bere indarra botoetan erakustea; eta gainera, ziur dago giro honetan emaitza onak litzakeela. Formulan asmatu behar, eta hori gaur gaurkoz ez dago bere esku bakarrik.

**Bidaia osotasunean  
burutzea da  
onuragarriena, baina are  
eta funtsezkoagoa bidaia  
bera bukatzea, gehiengo  
oso zabalak gura duen  
moduan**

Estatuak du zeresan garrantzitsua eta Eak eta Aralarrek ere bai.

Askok, gehienok, gehiago nahiko genukeen arren, ezker abertzalea ausart ari da jokatzeko. Orain ere hala egin beharko du eta horretarako jauzi berri bat eman. Testuingurua –“bide baketsu eta politikoetatik”– jadanik ezagutzen dugu, orain urrats berriak behar dira. Hauteskundeei begira eta muturrera joz, kondena hitza bera ere samur irentsi dezake “por inperativo legal” ospetsuak edo gisako batek. Iniciativa Internacinalistak egin zuen. Hitzak, moldeak eta erakusteko moduak ugariak izan daitezke, eta egungo testuinguruak ausart jokatzeko ahalbideratzen dio ezker abertzaleari.

**KALE BORROKAREN** agerpenean ez dago baikortasun ezpalik, berdin da hauek ezker abertzaleko sektoreek edo esku beltzak egin edo bultzatuak diren. Jarraitzen badute oso eragin kaltegarria izango dute bizi dugun prozesuan. Joera gisa errepikatuz gero, ezker abertzaleak orain arte baino tinkoago hitz egin beharko du. Bidaia osotasunean bukatzea da onuragarriena, baina funtsezkoagoa bidaia bera bukatzea, gehiengo oso zabalak gura duen moduan.



**TALLERES  
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatua

**Talleres Mitxelena, S.Coop.**

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)